

HERRIA/LOCALIDAD:				ATARRABIA - VILLAVA	
HIZLARIA/INFORMANTE:				MARITXU ITURBIDE BEORTEGI	
DOKUMENTUA/DOCUMENTO:				20210609083338	
Elkarrizketa osoaren iraupena / Duración total de la entrevista bruta:					67'
	IN	OUT	Iraupena Duración	TITULUA / TÍTULO	LABURPENA / ABSTRACT
1	00:01:09,34	00:02:22,26	00:01:12,42	01 Familia	Ama agoiztarra zen eta aita lmirizaldukoa. Bost anaia-arreba izan ziren. Maritxu Atarrabiako Kale Nagusian jaio zen, baina jaio eta hilabete gutxira Koloniako etxeetako batera joan zen familia.
2	00:02:21,49	00:04:25,29	00:02:03,30	02 Etxea	Biltegia, jangela, sukaldea, hiru logela eta komuna zituen etxeak. Baita patioa eta bajera ere. Etxe hartan oiloak, untziak eta usoak hazten zituzten.
3	00:04:25,08	00:08:04,04	00:03:38,46	03 Janzkera	Emakumeak ez ziren kolore deigarriekin janzten eta lutoa errespetatzen zuten. Arropa erostera Iruñera joaten ziren. Gizonezkoak galtza urdinak erabiltzen zituzten lanera joateko. Gorila markako oinetakoak gogoratzen ditu.
4	00:08:04,04	00:12:08,19	00:04:04,15	04 Elikadura	Ogia gosaltzen zuten, kafesnean bustita. Kale Nagusiko etxe batean erosten zuten esnea. Eguerdian bi plater izaten zituzten, batzuetan baita postrea ere. Asteburuetan oilaskoa jaten zuten. Anaia eta aita ehizan ibiltzen ziren eta baita arrantzan ere.
5	00:12:08,27	00:14:17,09	00:02:08,32	05 Gurasoekiko harremana	Gurasoekin harreman ona zuten, baina ama oso zorrotza zen. Aitak euskaraz pixka bat bazekien arren etxean gaztelaniaz hitz egiten zuten.
6	00:14:14,13	00:19:32,20	00:05:18,07	06 Herriaren deskribapena	Koloniako etxeak herrigunetik aldentuta zeudela zirudien. Koloniako etxearen eta Kale Nagusiaren artean ez zen beste etxebizitzarik. Pixkanaka joan ziren tarteko kaleak eraikitzen. Atzealdean Kale Nagusiko bizilagunek baratzak izaten zituzten. Denda eta taberna gehienak Kale Nagusian zeuden.
7	00:19:31,20	00:20:25,42	00:00:54,22	07 Inguruko herriekiko harremanak	Neskak ongi moldatu ohi ziren inguruko herrietako bizilagunekin. Mutilak aldiz norgehiagoka ibiltzen ziren. Atarrabiako neskek ongi moldatu ohi ziren batez ere Burlatako mutilekin.
8	00:20:25,42	00:21:39,13	00:01:13,21	08 Herritarren arteko harremanak	Herritarren artean nahiko giro ona zegoen. Gehiago erlazionatzen ziren. Maritxuk gogoan du Koloniako bizilagunek iluntzean etxe atarian elkartzeko ohitura zutela.
9	00:21:40,48	00:22:30,46	00:00:49,48	09 Garraioak	Maritxuk ez du Irati trenaren oroitzapenik. Villavesan igo ohi ziren Iruñera. Jaiegunetan, maiz igotzen ziren.
10	00:22:35,15	00:23:26,20	00:00:51,05	10 Eliza	Garai batean eliza txiki bat zuten herrian. Baina Maritxuk hamar urte inguru zituela bota egin zuten. Leku horretan bertan gaur egungo eliza eraiki zuten.
11	00:23:27,09	00:26:05,09	00:02:38,00	11 Tailerrak eta lantegiak	Onena, Biscarret, bi zerrategi, irindegia, Bretón... Hainbat tailer eta lantegi zeuden herrian. Zalantzarik gabe Onena zen enpresa handiena eta bertan emakumeek ere lan egiten zuten.
12	00:26:09,09	00:27:14,11	00:01:05,02	12 Jaiotzak	Maritxu etxean jaiotakoa da. Atarrabian emagin batek laguntzen zien emakumeei erditzearen unean. Ez du bere anaia-arreben jaiotzen oroitzapenik.
13	00:27:14,11	00:28:25,47	00:01:11,36	13 Lehen Jaunartzea	Aitak besotan eraman zuen elizaraino, egun hartan izugarrizko euri jasa bota zuelako. Hala ere, bustita iritsi zen elizara. Etxekoekin bazkari bat izan zuen etxean bertan.
14	00:28:26,46	00:30:20,09	00:01:53,13	14 Eskola garaia	Eskola garaiko oroitzapen onak ditu Maritxuk. Lehenik mojen ikastetxera joan zen eta ondoren eskola nazionalera. Mutilak eta neskak bananduta zeuden. Erlijio edukiak ikasten zituzten batez ere eta asteen behin josten ere ikasten zuten.
15	00:30:13,44	00:31:21,21	00:01:07,27	15 Lehen lanpostua	Ikastetxea utzi eta gero Indiano baten tailerrean hasi zen lanean. Handik bi urtera Onenan hasi zen lanean. Gurasoek nahiago zuten alabak Onenan lan egitea, etxetik gertuago zegoelako.
16	00:31:19,20	00:34:03,25	00:02:44,05	16 Onena 1	Ia bizitza osoa eman zuen Maritxuk Onenan lanean. Arau zorrotzak bete behar zirela dio. Inprimagailuetan normalean gizonezkoek lan egiten zuten eta kargu altuetako postuetan ere gizonezkoak zeuden. Maritxuk gogoan du bere sailean mekanikoa zen emakumezko bat zegoela baina ez zen ohikoa.
17	00:34:03,25	00:35:38,00	00:01:34,25	17 Langile borroka Onenan 2	1973. urtean egindako grebari esker baldintza hobekuntza garrantzitsua lortu zuten, batez ere soldatei zegokienez. Onenan baldintzak hobetu ahala Biscarretekoek ere lortzen zuten euren baldintzak hobetzea.
18	00:35:35,39	00:36:35,36	00:00:59,47	18 Onena 2	Emakume batzuk Iruñera joaten ziren dendetan lan egitera, baina gehienak Onenan sartzen ziren.
19	00:36:35,31	00:40:32,08	00:03:56,27	19 Langile borroka Onenan 2	Garai hartan sindikatuak sortzen hasi ziren. Langileen bilerak askotan legez kanpokoak izaten ziren. Emakumezkoen presentzia esanguratsua zen. Greba egunetan makinak gelditu egiten ziren, baina lantegira joaten jarraitzen zuten. Maritxu atxiloturik ere eraman izan dute. Itxialdian ere parte hartu izan du.
20	00:40:34,46	00:42:48,23	00:02:13,27	20 Aisia eta dantza taldea	Herrian zinea zuten. Bi saio eskaintzen zituzten, bat gaztetxoentzat eta beste helduentzat. Pipak jaten ere pasatzen zituzten igandeak. Dantza taldea betidanik izan dute Atarrabian. Zineman edo prozesio egunean dantza emanaldia eskaintzen zuten.
21	00:42:47,17	00:43:34,12	00:00:46,45	21 Guda Zibila	Maritxuren aita Gerrara joan zen. Gurasoek batez ere mutikoei kontatzen zizkieten Gerra Zibilar buruzko kontuak.
22	00:43:34,12	00:45:21,15	00:01:47,03	22 Frankismoa	Frankismoaren kontrakoak gazteekin bilerak egiten hasi ziren. Franco hil eta gero aldeketa handiagoa espero zuten. Oraindik gogoan du Franco hil zeneko eguna.
23	00:45:17,14	00:48:12,48	00:02:55,34	23 Trantsizioa	Aurretik elkarteak baziren arren, euren jarduna modu irekiagoan burutzen hasi ziren. Bizilagunen elkarteak zeuden non herriko beharren inguruan lanketa egiten saiatzen ziren. Pixkanaka jendea euskara ikasten ere hasi zen. Maritxu Iruñera joaten zen euskaltegira.
24	00:48:10,11	00:52:03,08	00:03:52,47	24 Emakumea eta genero indarkeria	Irati izeneko emakumeen elkarte bat zegoen herrian. Hasieran oso indartsu hasi ziren, baina ondoren ez ziren oso aurrerakoiak izan. Maritxuren ustez, genero indarkeria kasuen berri ez zuten izaten. Alicia Aristeguioren kasuak herritarrek mugiarazi zituen.
25	00:52:03,08	00:56:51,13	00:04:48,05	25 Langile borroka Onenan 3	Segurtasun neurriak hobetu ziren, nahiz eta istripu asko ez ziren izaten. Behin-behineko kontratuak jaistea ere lortu zuten. Emakumeek bestelako postuetarako sarbidea izatea ere lortu zuten. Dena den garrantzia handiena soldatarekin lotutako baldintzei ematen zieten.

26	00:56:45,18	00:59:25,12	00:02:39,44	26 Onenaren itxiera	Noiz behinka zenbait makina eramanen zituztenaren mehatxuak jasaten zituzten. Itxiera aurreikusi egiten omen zen. Zuzendari berria etorri zen eta hasieran aurrera egiten lagunduko zuela uste zuten arren alderantziz izan zen. Zuzendari hark oso umore txarra zuen. Pixkanaka langileak kaleratzen hasi ziren.
27	00:59:25,12	01:00:11,49	00:00:46,37	27 Festak	Herriko festak oso onak omen ziren. Buruhandiak, txaranga, dantzaldiak... Jaien ondotik apezak mutilekin dantzatu al zuten galdetu ohi ziren.
28	01:00:11,26	01:03:39,06	00:03:27,30	28 Erlijioa	Herri nahiko erlijiosoa omen zen. Igandero mezetara joan ohi ziren. Apaiza astero eskolara joaten zen erlijioa ematera. Apaiza modu berezian agurtzen zuten kalean. Konfesatzera ere joaten ziren. Aralarko Goi-aingerua etortzen zenean festa eguna izaten zen.
29	01:04:25,08	01:05:36,17	00:01:11,09	29 Kanpotik etorritakoak	Maritxuk uste du herritarrek ongi hartzen zituztela kanpotik Atarrabiara bizitzera etortzen zirenak. Baina Extremadurako lagun batek aitortu izan dio herrian oso itxiak zirela eta minduta sentitu zela etorri zenean.
30	01:05:33,41	01:07:04,44	00:01:31,03	30 Herria gaur egun	Orokorrean ongi ikusten du herria, hobetzeko gauzak ere badiren arren. Garbitasun falta nabaritzen du.
31	01:07:04,44	01:07:49,17	00:00:44,23	31 Arre	Arreko ermita eta zubia leku berezia da atarrabiar guztientzat. Maritxurentzat ere txoko ederra da.